



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

“HAZIK” TOKIAN BERTAN KONTROLAK EGITEA KONTRATATZEARI BURUZKO TXOSTENA

Laburpena: **TOCOsoko bilkura**

María Pilar Canedo Arrillaga and., lehendakaria

Natividad Goñi Urriza and., kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jn., kontseilukidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jn.

1. Lehiaren Euskal Agintaritzak, 2016ko ekainaren 8an egindako bileran, adierazitako osaerarekin, txosten hau ematea erabaki du, “Hazi Fundazioak” landa garapeneko zenbait neurri tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuak modu integralean ematea kontratatzeari dagokionez.

I. LEAren eskumena eta jatorria

2. LEAk nekazaritzako ingeniari baten erreklamazio bat jaso zuen, eta bertan salatu zuen Gipuzkoan landa garapeneko zenbait neurri tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuak modu integralean emateko “Hazi Fundazioaren” (aurrerantzean, Hazi) kontratazio pleguetan gehiegizko betekizunak jaso zirela; kontratazioan lehiari mugak jartzeko moduko betekizunak, hain justu ere. Gai horiek aztertu dira.

3. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeak erakunde honi esleitzen dio administrazio publikoei merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helarazteko eginkizuna¹. Zeregin horren xedea da lehia eraginkorra sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuetan, zehapen bidezkoak ez diren ekintzak erabiliz.

LEAk beharrezkotzat jo du aipatutako zerbitzuaren kontratazioa aztertzea, agente esleitzailari laguntzeko etorkizuneko kontratazioak hobetzen.

¹ Ikusi Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen (otsailaren 2ko 1/2012) 3.3.e) artikulua (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



Lehiaren Babesari buruzko Legeak Lehiaren Euskal Agintaritzari ahalmena ematen dio legea baino maila apalagoko arau juridikoak eta lehian arazoak sortzen dituzten egintza administratiboak aurkaratzeko². Erakunde honek, halere, egokiago jotzen du aurkaratzeak saihestea eta efizientzia eragitea administrazioekin lankidetzan egindako txostenen bitartez.

II.- Europar Batasunaren politikaren betekizunak

4. NPB Nekazaritza Politika Bateratuko neurriak bi funts erabiliz finantzatzen dira³:

Nekazaritzaren Europako Berme Funtsa (NEBF).

Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF).

5. Nekazaritzaren Europako Berme Funtsak, besteak beste, ekoizleen laguntzei lotutako nekazarietzako ordainketa zuzenak finantzatzen ditu⁴.

Laguntza horiek ez daude ekoizpenaren mende. Sistema hau ordainketa bakarreko laguntza gisa ezagutzen da, eta nekazariak aitortutako azaleraren arabera jasotzen dira. Laguntza horiek lortzeko lurra baldintza egokietan eduki behar da eta zenbait betekizun zehatz bete behar dira.

Azalerari dagokion ordainketa bakarreko araubidea nekazaritzak aitortutako hektarea onargarri bakoitzeko urteko oinarri zehatz baten arabera ematen da. Laguntza urtero kalkulatzen da, eta urteko zuzkidura finantzarioa estatu kideek aitortutako hektarea onargarrien kopuru osoaren arabera zatitzen da⁵.

² 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), abenduaren 22ko 39/2010 Legeak aldatzen duena (BOE-A-2010-19703); martxoaren 4ko 2/2011 Legea (BOE-A-2011-4117); eta ekainaren 4ko 3/2013 Legea (BOE-A-2013-5940). Testu finkatua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.

³ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1306/2013 (EB) Erregelamenduaren 3. art., Nekazaritza Politika Bateratua finantzatu, kudeatu eta hari jarraipena egitekoa, eta Kontseiluaren 352/78 (EE), 165/94 (EE), 2799/98 (EE), 814/2000 (EE), 1290/2005 (EE) eta 485/2008 (EE) erregelamenduak indargabetzen dituen (2013ko abenduaren 20ko L 347/549 EBAO).

⁴ Eeko 1306/2013 Erregelamenduaren 119.1 artikuluzatiaren d letra

⁵ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1307/2013 (EB) Erregelamenduaren 36. artikuluari jarraituz, Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruko laguntza araubideak betez nekazarietzako zuzeneko ordainketei aplikagarri zaizkien arauak ezartzen eta Kontseiluaren 637/2008 (EE) eta 73/2009 (EE) Erregelamenduak indargabetzen dituen (2013ko abenduaren 23ko L 347/865 EBAO).



6. LGENFk garatutako landa garapenerako programak finantzatzen ditu (LGP), Europar Batasunaren zuzenbidearekin bat etorriz⁶. EA Eren kasuan, laguntza horiek gaur egun Euskadi 2014-2020 LGPn zehazten dira (aurreko LGP 2007-2013 aldiari zegokion)⁷.

7. Laguntza zuzenak zein landa garapenerako programetatik eratorritako batzuk baldintzen kontzeptuaren mende daude. Hau da, Europar Batasuneko legedian aurreikusitako kudeaketa betekizun legalak bete behar dituzte, baita estatu mailan lurraren nekazaritza eta ingurumen baldintza onen arloan ezarritako gainerako arauak ere⁸.

8. Europar Batasunak eta estatu kideek LGENF eta NBEFko laguntzen kudeaketa partekatzen dute. Espainian, Estatuko Administrazio Orokorra da programaren koordinatzailea, eta autonomia erkidegoek ordainketa eta kudeaketa hartzen dute beren gain (erakunde ordaintzaileak deritze)⁹.

9. Ordainketa zuzeneko araubideei aplikatutako kontrolean Kudeaketa eta Kontrol Sistema Bateratua (SIGC) aplikatzen da¹⁰. SIGCn ordainketa eskubideak, nekazaritza lursailak, eskabideak eta ustiapenetako hainbat datu-base biltzen dira. Datu-base horiek laguntza eskaeretan administrazioen arteko kontrolak egiteko erabiltzen dira.

⁶ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 Erregelamenduaren (EE) bosgarren artikulua eta 1305/2013 Erregelamendua (EE), 2013ko abenduaren 17koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren bidez (LGENF) landa-garapenerari laguntzeari buruzkoa eta Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamendua (EE) indargabetzen duena (2013ko abenduaren 23ko L 347/865 EBAO).

⁷ Batzordearen erabakia, 2014-07-18koa; honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko (Espainia) 2014-2020 aldirako landa garapenerako programa onartu da http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/pdr2020_intro/es_agripes/adjuntos/PDR_2014_2020_v1.pdf

Batzordearen erabakia, 2008-II-15ekoa; horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko (Espainia) 2007-2013 aldirako landa garapenerako programa onartu da http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/contenidos/plan_programa_proyecto/pdrs_0713/es_dapa/adjuntos/DecisionPDR.pdf

⁸ Aipatutako 1306/2013 Erregelamenduko (EB) II. Eranskineko 90. art. eta hurrengoak.

⁹ Martxoaren 14ko 327/2003 Errege Dekretuak erakunde ordaintzaileen araubidea eta NBBEF-Bermearekiko koordinazioa arautzen du (80. BOE, 2003ko apirilaren 3koa), eta apirilaren 28ko 521/2006 Errege Dekretuak erakunde ordaintzaileen eta Europako nekazaritza funtsen koordinazioaren araubidea ezarri zituen (117. BOE, 2006ko maiatzaren 17koa).

¹⁰ 2014ko uztailaren 17ko 809/2014 (EB) Betearazpen Erregelamenduak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamenduaren aplikazio xedapenak ezarri zituen, landa garapenerako neurri eta baldintza, kontrol eta kudeaketa integratuko sistemari dagokionez (EBAO, L 227/69 zenbakia, 2014ko uztailaren 31).



Ustiapenak kontrolatu eta kudeatzeko sistema integratu honek datu-base informatikoak eta nekazaritza lursailak identifikatzeko sistema dauka (SIGPAC), laguntza eskubideak erregistratu eta identifikatzeko, kontrol integratua egiteko, nekazari bakoitzaren nortasuna erregistratzeko eta animaliak identifikatu eta erregistratzeko.

SIGCri lotutako kontrolak tokian bertan egindako kontrolen parekoak dira.

Landa Garapenerako Programen artean, zenbait neurri SIGCren parekoak dira, jarraitutako kontrol sistemari dagokionez. Neurri horiek aitortutako azaleraren tamainan edo aitortutako animalia kopuruan oinarritzen dira ¹¹.

SIGCren funtzionamenduan ezinbestekoa da Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (aurrerantzean SIGPAC); horri esker, landutako edo abeltzaintzarako erabilitako azalerari lotutako edozein laguntza araubidetan nekazariak eta abeltzainek aitortutako lursailak geografikoki identifika daitezke.

EAEen SIGPACen mantentze-lana Haziri dagokio, eta kontrol lanak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan egiten ditu.

III.- Zerbitzuaren deskribapena

10. Tokian bertan egiten diren kontrolak landa ikuskatzeak edo *in situ* bisitak dira; horrelakoetan, eskabide lagin batean laguntzak zein baldintzatan eman diren egiaztatze saioa egiten da.

Praktikan, kasu bakoitza aukeratzekoan baliatutako arau eta betekizun gehienak ikuskatu daitezkeen aldi egin behar dira laborantza ikuskatzeak. Hala, laguntza zuzenen kasuan ohikoa da bilketa baino lehen edo jarraian egitea.

Nekazaritza lursail bakoitza kontrolatzeko, hasteko, kontrolatzaileak analisi bat egiten du. SIGPACeko ortoargazkiak, ekoizleak aurkeztutako krokis zedarrituak eta SIGPAC esparru guztietako lursailen errealitatea aintzat hartzen dira.

Kontrolatutako nekazaritza lursail bakoitzean:

- aitortutako erabilera/laborantza erein denarekin bat datorren egiaztatzen da
- horretarako ezarritako nekazaritza baldintzak betetzen ote diren egiaztatzen da, eta

¹¹ 16/2013 koordinazio zirkularra. Landa Garapenerako Neurrien Kontroleko Plan Nazionala, 2007/2013 aldirako. http://www.fega.es/PwfGcp/imagenes/es/CIRCULAR_16-2013_PLAN_NACIONAL_CONTROLES_MEDIDAS_DESARROLLO_RURAL_2007_2013_tcm5-39832.pdf.



- azalera neurtzen da

11. Tokian bertan egindako kontrolen emaitzak akta batean jasotzen dira, "ondorengo kabinete lanak" deritzenak egin eta gero. Aktak gai hauei buruzko informazioa izan behar du:

- kontrolatzailearen eta ikuskatutakoari buruzko datuak
- eguna eta ordua
- nekazariari aldez aurretik jakinarazteko tartea edo ezusteko kontrola
- kontrolatutako laguntza araubideak eta eskabidea
- kontrolatu beharreko elementuak
- egindako kontrolen irismena eta izaera (kontrolatutako nekazaritza lursailak eta neurriak, neurtutako azalerak, neurtzeko metodoa, baldintzak...).
- ikuskaritzaren oharra edo alderdi nabarmenak
- tokian bertan ikusitakoaren eta SIGPACen arteko desberdintasunak
- sinadura

Kontrolen emaitzak SIGPACen txertatzen ditu unitate arduradunak.

12. EAEn, kontrolen erakunde espezializatuak foru aldundiak dira. Tokian bertan kontrolak egingo dituzten kontrolatzaileei beharrezko informazio guztia aldundiek ematen dute, baita jarraibide zehatzak ere.

Kontrolatzaileek honako hau eraman behar dute:

- Egin beharreko egiaztapenak egiteko behar den dokumentazio guztia (kontrol motaren arabera), laguntza eskabideen kopia, ustiapenaren erroldaren zerrenda berria, SIGPAC informazio alfanumerikoa eta grafikoa, eta abar.
- Kontrolak egiteko eta ustezko ez-betetzeen frogak aurkezteko beharrezko ekipamendua: prismatikoak, argazki kamera digitala (data erakusten duena), eta abar.
- Hala badagokio, laginak hartzeko materiala.

Kontrol horien emaitza gisa lortutako lana espedienteetan jasoko da, zeina a *posteriori* erakunde ordaintzaileak (autonomia erkidegoak) eta Europar Batasunak ikuskatu baitezakete, europar legedia modu homogeneoan aplikatu den egiaztatzeko.



IV. Zerbitzua kontratatzea EAEn

1.- Foru aldundiak. Bakoitzaren eskumenak eta egoera

13. Foru aldundiek eskumen eskusiboa daukate nekazaritza eta basogintza politiken arloan¹². Horregatik, zerbitzu teknikoaren lanak (kontrola eta ikuskaritza barne) eta horiek kudeatutako laguntzen ordainketak baimentzeko lanak foru aldundiek hartzen dituzte beren gain¹³.

Besteak beste, funtzio hauek betetzen dituzte:

- Kontrolak eta ikuskapenak egitea.
- Kontrol programak garatzea.

14. Foru aldundiek prozedura komunak izan behar dituzte ardatz, partzialki kudeatzen dituzten laguntzen ikuskaritza eta kontrol eginbeharrei dagokienez¹⁴. Tokian bertan zein administrazioan egiten dituzten kontrol lanak egitean, bermatu egin behar da honako puntu hauek benetan egiaztatzea:

- a) aurkeztutako laguntza eskaeran, ordainketa eskaeran edo beste edozein adierazpenetan jasotako informazioaren zehaztasuna eta zorroztasuna.
- b) onargarritasun irizpide, konpromiso eta laguntza araubidearen edo kasuan kasuko laguntza neurriaren bestelako betebeharrak oro betetzea, baita laguntza edo betebeharren salbuespenak emateko baldintzak ere.
- c) baldintzei lotutako betekizun eta arau aplikagarriak.

15. Aldundiek tokian bertan egiten dituzte kontrolak, zuzenean, tokian bertan lan egiten duten enpresak kontratatuz edo bi modalitateak bateratuz.

Sasoi jakin bateko lana da, nekazaritza ingeniariak edo nekazaritza ingeniari teknikariak egiten dute, eta, besteak beste, argazki kamera, prismatikoak,

¹² 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko Harremani buruzkoa (182. EHAA, 1983ko abenduaren 10ekoa).

¹³ Urriaren 3ko 194/2006 Dekretuko 12. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailea osatzen duena, eta Eusko Jaurjaritzak eta foru aldundiek hartutako lanak zehazten dituena (196. EHAA, 2006ko urriaren 13koa).

¹⁴ Aipatutako 809/2014 Betearazpen Erregelamendua (EB). Halaber, kontrolen eta kontrol elementuen plan nazionalen buruzko NBEFko (Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtza) Koordinazio Zirkularrak eta NBEFko 5-2014, 6-2014, 16-2014 eta 5/2015 Koordinazio zirkularrak zaindu beharko dira, eskabide bakarraren, landa garapenaren eta baldintzen neurriei buruzkoa.



GPSa, neurketa topografikorako gailuak, ordenagailua eta ikuskatu beharreko lursailera sartu ahal izateko ibilgailua behar dira.

Kontrolak egiten dituenak beharrezko softwarea izan beharko du SIGPAC aplikazioarekin lan egin ahal izateko. Aipatutako softwarea aldundiek ematen dute, aldundiek kontratatzen baitituzte tokian bertan egin beharreko lanak.

16. Arabako Foru Aldundiak kontrol horiek bertako langileekin egin ditu, LEAra 2015. urtean igorritako dokumentazioan ageri denez. Data horretatik aurrera landa garapeneko neurriei eta ordainketa bakarraren araubideari lotutako tokian bertako kontrolak Haziren bitartez egitea erabaki du.

17. Bizkaiko Foru Aldundiak bertako langileekin zein Idom Ingeniería y Consultoría SA eta Ingeniería para el Desarrollo Medio Ambiental Agroforestal IMADE SL enpresen bitartez (kontratu txikien bidez) egin ditu aipatutako lanak. Horietan ez dago jasota inolako esperientzia betekizuna eskatzen denik.

18. Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeaketa agindu zehatzen bitartez egin ditu aipatutako kontrolak, aurrena IKT Nekazal Teknologia SAri eta ondoren Haziri aginduz¹⁵.

2.- Hazik egindako lana

19. Hazik Gipuzkoako (2011tik) eta Arabako (2015etik) foru aldundien kudeaketa aginduak jaso zituen tokian bertan kontrolak egiteko, eta bere lana prestazio horren kontrataziora mugatzen da.

Nabarmendu behar da Hazik ez dituela aldundien berezko baliabide gisa jotzeko lege betekizunak betetzen. Hazik ez du betetzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 24.6 artikulua, botere esleitzailak bere zerbitzu propioen gainean duen kontrolaren antzekoa ente, organismo eta erakunde horien gainean eduki beharrari buruzkoa, eta, horrenbestez, ezin da aldundien baliabide propio gisa hartu eta, hortaz, ezin zaizkio kudeaketa aginduak eman¹⁶. Estatutuen arabera (12. art.), aldundiek Patronatuko 15

¹⁵ Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilu gorenak 2011ko apirilaren 12ko bilkuran onetsitako erabakien laburpena (Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak IKT Nekazal Teknologia SA sozietateari egiten dion kudeaketa mandatua formalizatzeko hitzarmena, hain zuzen, bertan jasotako zerbitzuak betetzeko) 2011ko ekainaren 3ko 105. GAO.

¹⁶ 3/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena; 2011ko azaroaren 16ko BOE, 276. zk.); honako hauen bidez aldatu da: 17/2012 Legea, abenduaren 27koa (BOE-A-2012-15651); 4/2013 Errege Lege Dekretua, otsailaren 22koa (BOE-A-2013-2030); 8/2013 Legea, ekainaren



kideen arteko hiru izendatu ahal dituzte. Aldundietako ordezkari horien gain izan dezaketen kontrolak ez dirudi erabakigarria izango denik Haziko helburu estrategikoetan eta erabaki esanguratsuetan¹⁷.

3.- Hazik egindako kontratazioak

20. Hala ere, 2011n, IKT Nekazal Teknologia SA (gaur egungo Hazin integratutako enpresa) “2007-2013 aldiaren landa garapenerako neurriak, baldintzakoak, SIGCren parekoak (ICM eta ingurumen eta nekazaritzakoak), ordainketa bakarrekoak, 68. artikulukoak eta erlezaintza laguntzekoak tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuen prestazio integrala” lizitaziora aurkeztu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Lizitazioaren oinarriko aurrekontua 70.000 eurokoa zen (gehi BEZa), eta, betekizun zehatz gisa, tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiatzearen kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio espedienteak aztertzen **gutxienez bi kanpainako esperientzia** egiaztatzeko eskatu zen.

Kontratua Zerbinek SL enpresari esleitu zitzaion, 68.897,60 euroko kopuruan (gehi BEZa).

21. 2012an, Hazi Kontsultoria SA (lehenago IKT zena) “2007-2013 aldiaren landa garapenerako neurriak, baldintzakoak, SIGCren parekoak (ICM eta ingurumen eta nekazaritzakoak), ordainketa bakarrekoak, tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuen prestazio integrala” emateko lizitaziora aurkeztu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

26koa (BOE-A-2013-6938); 8/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa (BOE-A-2013-7063); 10/2013 Legea, uztailaren 24koa (BOE-A-2013-8083); 11/2013 Legea, uztailaren 26koa (BOE-A-2013-8187); 14/2013 Legea, irailaren 27koa (BOE-A-2013-10074); 20/2013 Legea, abenduaren 9koa (BOE-A-2013-12888); 25/2013 Legea, abenduaren 27koa (BOE-A-2013-13722); 1/2014 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 24koa (BOE-A-2014-747); 13/2014 Legea, uztailaren 14koa (BOE-A-2014-7468); 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa (BOE-A-2015-3443); 25/2015 Legea, uztailaren 28koa (BOE-A-2015-8469); 31/2015 Legea, irailaren 9koa (BOE-A-2015-9735), 10/2015 Errege Lege Dekretua, irailaren 11koa (BOE-A-2015-9801); 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa (BOE-A-2015-10566). HAP/2846/2015 Agindua, abenduaren 29koa, 313. BOE, 2015eko abenduaren 31koa. Testu finkatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>.

¹⁷ Horren haritik, Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2015eko azaroaren 11ko Ebazpena, 7/2013 expt., Arabako Obra Publikoak; bertan jurisprudentzia europarrak baliabide propioei buruz eskatutako betekizun zehatzak jaso dira.

Hemen eskura daiteke:

http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/es_resoluci/adjuntos/RESOLUCION%20arabako%20lanak%20definitiva%20sin%20firmas.pdf.



Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 54.000 eurokoa zen (gehi BEZa), eta, betekizun zehatz gisa, tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiategietan kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio espedienteak aztertzen **gutxienez bi kanpainako esperientzia** egiaztatzeko eskatu zen.

Kontratua Zerbinek SL enpresari esleitu zitzaion, 54.000 euroko zenbatekoan (gehi BEZa)

22. 2013an, Hazi Fundazioa “2007-2013 aldian landa garapenerako neurriak, baldintzakoak, SIGCren parekoak (ICM eta ingurumen eta nekazaritzakoak), ordainketa bakarrekoak, tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuen prestazio integrala” lizitaziora aurkeztu zen Gipuzkoan.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 47.000 eurokoa zen (gehi BEZa), eta, betekizun zehatz gisa, tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiategietan kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio espedienteak aztertzen **gutxienez hiru kanpainako esperientzia** egiaztatzeko eskatu zen.

Kontratua Zerbinek SL enpresari esleitu zitzaion, 47.000 euroko zenbatekoan (gehi BEZa)

23. 2014an, Hazi fundazioa “2007-2013 aldian landa garapenerako neurriak, baldintzakoak, SIGCren parekoak (ICM eta ingurumen eta nekazaritzakoak), ordainketa bakarrekoak, tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuen prestazio integrala” lizitaziora aurkeztu zen Gipuzkoan.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 58.500 eurokoa zen (gehi BEZa), eta, betekizun zehatz gisa, tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiategietan kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio espedienteak aztertzen **gutxienez hiru kanpainako esperientzia** egiaztatzeko eskatu zen.

Kontratua Zerbinek SL enpresari esleitu zitzaion, 58.500,00 euroko zenbatekoan (gehi BEZa)

24. 2015ean, Hazi fundazioa “2007-2013 aldian landa garapenerako neurriak, baldintzakoak, SIGCren parekoak (ICM eta ingurumen eta nekazaritzakoak), ordainketa bakarrekoak, tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuen prestazio integrala” lizitaziora aurkeztu zen Gipuzkoan.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 65.000 eurokoa zen (gehi BEZa), eta, betekizun zehatz gisa, tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiategietan kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio



espedienteak aztertzen **gutxienez hiru kanpainako esperientzia** egiaztatzeko eskatu zen.

Kontratua Zerbinek SL enpresari esleitu zitzaion, 65.000 euroko zenbatekoan (gehi BEZa)

25. Bestalde, 2015ean, Hazi fundazioa "Mendi Eremuetan Konpentsazio Kalte-ordainak 2007-2013 aldian landa garapenerako neurriak, ordainketa bakarrekoak, tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuen prestazio integrala" lizitazioa aurkeztu zen, Araban.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 35.000 eurokoa zen (gehi BEZa), eta, betekizun zehatz gisa, tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiategietan kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio espedienteak aztertzen **gutxienez hiru kanpainako esperientzia** egiaztatzeko eskatu zen.

Kontratua Zerbinek SL enpresari esleitu zitzaion, 35.000 euroko zenbatekoan (gehi BEZa)

26. Aipatutako lizitazioetan, egin beharreko lanak honako hauek izan dira:

- Kontrolak planifikatzea eta koordinatzea: lanen programazio orokorra, kontrol teknikarien prestakuntza eta koordinazioa, lanak banatzea eta hobetzea eta kontrol taldeak kudeatzea.
- Aldez aurreko kabinete lana: espedientearen agiri analisia, GVSIG aplikazioaren gainean lursailak lokalizatzea, lursail bakoitzeko banakako azterlana eta gorabehera potentzialak identifikatzea, landa bisitarako espedientea prestatzea eta kontrolak planifikatzea.
- Landa lana: bisita ustiategira eta eskatutako eta aitortutako azalaren gaineko betebeharrak eta betekizunak *de visu* egiaztatzea. Neurketak egitea (GPS) eta dokumentazio grafikoa lortzea, nolabaiteko desbideratzea atzemanaz gero. Euskarri dokumentazioa prestatzea (krokisa, behatze-lana, xehetasunak...).
- Ondorengo kabinete lana: landan lortutako informazioa GIS aplikazioaren bitartez jasotakoarekin erkatzea, GPS neurketak txertatzea, desbideraketak aztertzea eta ebaluatzea, eta kontrol akta eta txostenak prestatzea.
- Kontrolaren akta aurkeztea: ustiategiari bisita planifikatzea, kontrol aktaren edukia irakurtzea, sinatzeko proposatzea eta titularrari dokumentazioa entregatzea.



V. Esperientziaren betekizunaren analisia lehiaren ikuspuntutik

1.- Sartzeko hesiaren kontzeptua

27. Sarrerako hesi gisa hartzen dira operadore berriak merkatu jakin batean sartzeko izaten diren zailtasun eta kostu guztiak; batzuetan, zailtasun eta kostu horiek ezinezko bihurtzen dute operadore berrien sarrera¹⁸.

28. Administrazio publikoek merkatu batean sartzeko ez duten edo sarrera mugatzen duten legezko oztopoak ezartzen badituzte, oztopo horiek zenbait eskakizun bete behar dituzte, 17/2009 Legeak –zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoak– dioena betez¹⁹:

- Bereizkeriarik ez egitea naziotasunagatik edo establezimenduaren kokapenagatik edo gizarte egoitzagatik;
- Beharra: ordena publikoagatik, segurtasun publikoagatik, osasun publikoagatik edo ingurumenaren babesagatik justifikatuta egotea, edo natura baliabideen eskasiagatik edo ezin nahasizko eragozpen teknikoak direla eta, merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatua bada.
- Proportzionaltasuna: mugaketa helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izatea, ez dagoelako emaitza bera lortzeko aukera ematen duten neurri zabalagorik.

Bereizkeriarik ezaren, beharraren eta proportzionaltasunaren eskakizunak betetzen ez dituzten legezko oztopoak egotea eragozpen bat da zerbitzuak oztoporik gabe emateko, eta, beraz, eragozpen bat da eragindako merkatuan lehia efektiboari eusteko.

Sarrerako oztopoek eragin negatiboak sortzen dituzte ezartzen diren ekonomietan, lehiaren tentsioa handitu dezaketen operadore berrien sarrera sustatzen ez dutelako, eta, horren ondorioz, zerbitzuak emateko baldintza hobeak ez direlako sortzen. Merkatuetan sarrerako oztoporik ez egoteak enpleguak sortzea, berrikuntza eta lehiaren hobekuntza sustatzen dute.

¹⁸ LEHIAREN DEFENTSARAKO AUZITEGIA Kontzentrazio Ekonomikoen Espedientearen Txostena C89/05 Igualatorio Medikoak, Madril, 2005, 73. or. <http://www.cnmc.es/es-es/competencia/buscadorde/resoluciones.aspx?num=C89/05&ambito=Concentraciones&b=Igu alatorios Médicos&p=9&ambitos=Concentraciones,Recursos,Sancionadores CCAA,Sancionadores Ley 30,Vigilancia,Medidas cautelares,Conductas&estado=0§or=0&av=0>.

¹⁹ 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa, 283. BOE, Merkatu batasuna bermatzeari buruzko 2009ko azaroaren 24ko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak aldatutakoa (295. BOE, 2013ko abenduaren 10ekoa). Testu finkatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2009-18731&b=8&tn=1&p=20131210#a5>.



Horregatik, administrazioak arrazoirik gabeko oztopoak sortzea eragotzi behar du, horrelakorik badago, lehiako agintaritzak esku hartu beharko bailuke, dagozkion sustapen-gaitasunak erabiliz, edo, legea baino maila txikiagoko arauen kasuan, aurkaratzeko gaitasunak erabiliz.

2.- Eskatutako betekizunaren analisi konparatua

29. Zerbitzu hori kontratatzerakoan hiru urteko esperientzia eskatzeko premia aztertze aldera, egokitzat jo da beste autonomia erkidego batzuek ezarritako betekizunak konparatuz aztertzea. Antzeko izaerako kontratuak Galizian baino ez dira aurkitu. Horietan, esperientzia betekizuna modu zabalagoan jaso da, nahiz eta horietan ere ez den justifikatzen proportzionaltasuna eta beharrizana.

2014-2015 kanpainarako Galiziako autonomia erkidegoak kontratuaren xedearekin bat etorritako lanen multzo bat egin izana eskatu zuen (edo kontratuaren xedearikiko lotura izatea); hain zuzen ere, hiru urteko batura lote bakoitzaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren pareko zenbatekoan edo zenbateko hori gaindituz egin izana (BEZik gabe)²⁰.

2015 eta 2016 kanpainetan, kontratuaren xedearen pareko edo horri lotutako antzeko lanak egin izana egiaztatzeko eskatzen zaio lizitatzailari; hain zuzen ere, hiru urte batuz lote bakoitzeko lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %10eko pareko edo gehiagoko zenbatekoan egin izana (BEZik gabe)²¹.

30. Hau da, esperientzia eskatzen duen autonomia erkidego bakarra aurkitu da, eta adibide bakar horrek ere modu zabalagoan eskatzen du.

3.- Eskatutako esperientzia betekizunaren proportzionaltasunaren eta beharrizanaren azterketa

31. 2011. eta 2012. urteetan, Hazik gutxienez bi kanpainako esperientzia betekizuna ezarri zuen "tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiategietan

²⁰ Kontratazioa administrazio klausula berezien pleguen bitartez arautuko da, prozedura ireki bidez, erregulazio harmonizatura lotuta egon gabe, izapidetze arruntarekin, onargarritasun eta baldintzei dagokienez tokian bertan kontrol lanak egiteko zerbitzua, Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB) laguntza zuzenetan eta landa garapenerako laguntzetan, azaleretan oinarrituz, 2014-2015 kanpainarako, PA 1/2014 (3 lote), agiri kontratazio erraztua.

²¹ Akordio markoaren administrazio klausula berezien plegua, zenbait enpresabururekin, erregulazio harmonizatura lotutako prozedura ireki bidez, izapidetze arruntarekin, onargarritasun eta baldintzei dagokienez tokian bertan kontrol lanak egiteko zerbitzurako, Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB) laguntza zuzenetan eta landa garapenerako laguntzetan, azaleretan oinarrituz, 2015eko eta 2016ko kanpainetarako, PA 1/2015 (5 lote), agiri kontratazio erraztua.



kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio espedienteak aztertzen". 2013., 2014. eta 2015. urteetan zerbitzu berean hiru kanpainako esperientzia betekizuna eskatu zen.

Antzeko gaietan ez da esperientzia egiaztatzea edo akreditazio profesionala onartzen.

Hazik azaldu duenez, betekizun hori inposatu da "egiaztatu beharreko elementuak teknikoki oso konplexuak direlako", eta "laguntza eskabide bakarrak administrazio mailan kudeatzea erabat menderatu behar delako".

Esperientzia ezarri den hiru kanpainako aldia azaltzeko, "garatu beharreko funtzioen profila eta erabateko eraginkortasun parametroetan jarduteko premia" argudioak aipatu dira.

Ez dute argudiatu esperientzia eskakizuna zergatik luzatu den bi urtetik hiru urtera.

Hala ere, tokian bertan kontrolak garatzeko funtzioak deskribatzerakoan ez da ikusi zerbitzu hori egiteko hiru kanpainako esperientzia eskatzea justifikatzen duen horrelako konplexutasunik. Ez garatu beharreko jarduerak, ez administrazio arloko kudeaketa lanak menderatzeak ez dute justifikatzen aipatutako betekizuna, LEAren ustez.

Betekizun hori ezartzea ez da justifikatu ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arrazoen bitartez; horrenbestez, muga ezin da beharrezkotzat jo, are gehiago aintzat hartuz botere adjudikatzailleak 2011n eta 2012an komenigarritzat jo zuena (bi kanpainako esperientzia) ez zela nahikotzat jo 2013an, 2014an eta 2015ean (hiru kanpainako esperientzia eskatu zen).

32. Sarrera hesi horrek eragotzi egiten du tokian bertan kontrolak egiteko merkatura zenbait profesional edo enpresa sartzea, hain zuzen ere, eskatutako titulazioa izanik (nekazaritza ingeniaria edo nekazaritza ingeniari teknikoa), eta, horrenbestez, eskatutako lana ondo egiteko beharrezko prestakuntza eta ezagutza izanik, gutxieneko esperientzia izateko betekizuna betetzen ez badute.

Horren ondorioz, merkatura itxi egiten da orain arte Hazik lizitatutako kontratuen enpresa esleipendunaren alde.

33. LEAren ustez, hiru kanpainako esperientzia betekizuna ezartzea ez da modu egokiena lortu nahi den helburua lortzea bermatzeko (alegia, hizpide ditugun kontrolak ahal bezain modu eraginkorrean egitea).



Aitzitik, betekizun hori ezartzearen ondorioz, ia kasu guztietan kontratua administrazioak baimendutako prezio altuenean esleitzen da.

Beharrezkoa ez den betekizun bat eskatzeak eragotzi egiten du eskaintza lehiakorrek aurkeztea zerbitzuan kalitate eta baldintza ekonomikoetara dagokienez.

Hain justu ere, enpresa titularra baldin bada kontratuak lor ditzakeen bakarra, orduan enpresa horrek badaki ondoz ondoko kanpainetan zerbitzua ematen jarraituko duela, aurkeztutako eskaintza eta lanaren kalitatea aintzat hartu gabe.

34. Horren ondorioz, beste administrazio batzuetan esperientzia betekizun parekagarriarik ez dagoenez, egin beharreko kontrolen edukia den bezalako denez, Bizkaiko kasuan antzeko esperientzia eskakizunik ez dagoenez, Araban kontrolak administrazioaren baliabide propioekin egin denez Hazi fundazioaren bitartez kontrataziora jo beharrik gabe, Hazi bi urtetik hiru urteko esperientziako betekizunera aldatzea justifikatu ez duenez (betekizun txikiagoa jarri zerbitzuaren prestazioan arazorik atzeman gabe) eta lortu nahi den helburuaren eta sortutako hesiaren arteko loturarik ez dagoenez, LEA-ek ondorioztatu du hiru kanpainako esperientzia eskakizuna ez dela beharrezkoa eta merkatuan sartzeko hesi justifikatugabea sortzen duela.

Aztertutako kontratu guztiak enpresa berberari esleitu izana eta esleipenaren prezioak ia kasu guztietan administrazioak baimendutako kontratazio prezio altuenekin bat etortzea baliteke aipatutako hesi horren ondorioz gertatu izana.

VI. Ondorioak

LEHENENGOA. Aztertutako laguntzen kontrolaren lehiakortasunaren administrazio publiko titularren foru aldundiak dira, eta aldundiei dagokie kasuan kasuko zerbitzua kontratatzea, ez bitartekari huts gisa jarduten duen beste administrazio baten baliabide bati. Administrazio onaren printzipioa errespetatzeak aldundi bakoitzak prozesu horiek zuzenean egiaztatzea eskatzen du, erabateko eraginkortasuneko baldintzetan egiten direla bermatu ahal izateko.

BIGARRENA. Tokian bertan kontrolak garatzen eta ustiatzeetan kudeaketa betekizun legalei eta laguntza neurriei lotutako administrazio espedienteak aztertzen gutxienez hiru kanpainako esperientzia betekizuna eskatzea beste enpresa eta profesional batzuk merkatuan sartzeko hesi justifikatu gabea da, 2007-2013 aldian landa garapenerako neurriak, baldintzakoak, SIGCren parekoak (ICM eta ingurumen eta nekazaritzakoak) eta ordainketa bakarrekokoak



tokian bertan kontrolatzeko zerbitzuen prestazio integralerako lizitazioen pleguetan barne.

HIRUGARRENA. Aldez aurreko esperientzia betekizun neurrigabeak eskatzearen ondorioz merkatua ixteak kontratazio publikoaren eraginkortasunik eza dakar, kontratu hauek lizitazioaren gehienezko prezioan behin eta berriro esleitu izanak erakusten duen moduan.